



IKASTEKO OHITURAK SORTU

(GURASOEI LAGUNTZEKO GIDA)



ZERI BURUZ HITZ EGITEN ARI GARA?



- Zer da ikastea? Lehen Hezkuntzako umeengan pentsatuz gero, eskola-lanekin zer ikusia duten zeregin guztiak dira: etxeko lanak, kontsultak, birpasatzea eta arloetako ikasgaiak ikastea.
- Ume askorentzat ikastea ez da atsegina, baina **ikaste garapenerako beharrezkoa da**. Ohitura sortuz gero, orainaldian gauzak errazagoak izango dira eta geroan egingo dituzten ikasketei aurre egiteko prest egongo dira. Etorkizuneko ikasketek denbora gehiago eta ardura handiagoa eskatuko diete.
- Beraz, **Lehen Hezkuntzako 1. ikasmaitatik umeek ohitura har dezaten**, aholku batzuk erakutsiko dizkizuegu. Honen jarraipenaz heldua (aita, ama, tutorea, ...) arduratu behar da.



NON IKASI?: AUKERATU LEKUA




- **Beti leku berean.**
- **Ezin daiteke eskuan entretenigarrik izan:** ez jostailurik, ez kontsolarik, ez ordenagailurik, ez telebistarik, ...
- Logela leku egokia ez izatekotan, “prestatu” beste leku bat ikasteko: sukaldean, jangelan, ...

NOIZ?



- **Beti ordu berean, astelehenetik ostiralera.**
- **Arratsaldeko seiak eta zortziak bitartean** erabaki ahal dugu; ez lehenago (klaseak amaitu eta gero eta jan ondoren denbora tartea utzi behar da), ez beranduago (beranduegi amaituko litzateke).
- Ikasteko unea eta ekintza atseginak batera gertatuz gero, bilatu irtenbideren bat: telebista saioa grabatu, aukeratu beste eskolaz kanpoko ekintzak, ...
- **Larunbatetan ala igandeetan ikasi behar da.** Aukeratu eguna, baina beti egun berean: larunbatean ala igandean.
- Asteazkenetik ostiralekora, asteburukoak ez da bera izan behar. Asteburuan, adibidez, goizean lan egin daiteke; baina beti une berean.



NOLA? OHITURA SORTU

- **Ikasten hasi baino 15 minutu lehenago, ezin da egin bizigarriak edo amaitu ezin diren ekintzak:** bideo-jokoak , kirolak, telebista saioak. Egin lasaigarria den zerbait.
- **Beti modu berean hasi:** jarri eroso, prestatu lekua...
- **Umearentzat atseginoak diren lanekin hasi.**
- **Hasieran gurasoek umea animatu eta berarekin maitakorrak izan zaitezte,** baina gero bakarrik utzi.
- **Lehen 15 minutuetan ez da etenaldirik egon behar:** ez altxatu, ez deitu aitari edo amari, ez bilatu materiala. Hori egiten badu, ez ikuasiarena egin, eta beste lan batekin jarraitzeko esan. Denbora hori amaitu ondoren etenaldi laburrak egin ditzake: ura edan, komunera joan, ...
- Lehenengo saioetan 10 minuturo joan zaitezke berarengana, zoriontzeko eta animatzeko.
- **Saioaren amaieran , utzi denbora (ikasmilaren arabera) egiten ez dakizkien lanak egiten laguntzeko.**
- Beti egiteko zerbait dago: etxerako lanik egon ezean, birpasatu ikasgaiak, ikasi, berriro egin egindako ariketak, ...



ZENBAT DENBORA?



- **Hau mugatzea zaila da.**
- Ohitura gutxi daukatenak lehenengo bi astetan, egunero, 30 minuturekin has daitezke.
- Bigarren hastetik aurrerantz gehitu denbora bere ikasmailan behar den denborara ailegatu arte, 10 minutu astero.
- **Lehen Hezkuntzako 1.an** : 20 minutu.
- **2.nean**: 30 minutu.
- **3. eta 4.etan**: ordu 1.
- **5. eta 6.etan**: ordu 1 eta ordu 1 eta 30 minutu bitartean.
- **Ikasten ematen den denbora ez luzatu.** Zein ordutan hasiko den ikasten eta zein ordutan amaituko den zehaztuta egon behar da. Honela, hobeto aprobetxatuko da denbora. Denbora gehiago behar izanez gero, hitz egin tutorearekin ea lan kantitatea gehiegi den eta ziurtatu ea denbora aprobetxatzen duen.